

Jesus Krist gure Jaunaren Testamentu Berria (1571): Zenbat ale daude?

Ez da erraz erantzuteko galdera. Gai horretan egon den aditu nagusiak, Julien Vinsonek, 26 aleren berri zeukan 1907an, hots, orain dela ehun urte, baina arreta bereziz ohartarazten digu berak azken urteotan ikusi edo *ezagututako* ale horietatik ordurako bi desagertuak zirela, eta beldur zela beste hainbat ere bide beretik ez ote ziren joango, hots, bilduma pribatuetan ezkutatuak. Gaur egun, erosketa honen harira eginiko bilaketa arin batean, hamaika ale baino ez dugu aurkitu ahal izan, horietatik zortzi biblioteka publikoetan eta beste hiru bilduma pribatuetan. Vinsonek edo Schuchardtek behin eta berriro aipatzen dituzten ale batzuk desagertuak daude egun. Euskaltzaindiak erosi berri duena, beraz, ezagutzen dugun hamabigarrena litzateke.

Pruden Gartzia